

Itziarko tunela (Deba) bi gauetan itxiko da, Bilborako noranzkoan zorua berritzeko

Irailaren 30ean, astelehena, eta urriaren 1ean, astearte, 23:00etatik 05:00etara.



Astelehen eta astearte gauetan, irailaren 30ean eta urriaren 1ean, AP-8ko Itziarko tunelaren zoruaren tarteko geruza berrituko da Deban (55,300 kp), Bilborako noranzkoan. Hori dela eta, tuneleko hodia itxita egongo da bi gau horietan, 23:00etatik 05:00etara. Lanak gau ez egingo dira, ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Alternatiba gisa, Bilborako norabideko trafikoak Itziarren atera beharko dira eta N-634 errepidetik jarraitu Elgoibarko lotuneraino. Behobiarako noranzkoan tunela irekita egongo da.

Eremu horretan bertan fresatu eta errodadura-geruza berria zabalduko da 57,200 eta 59,000 kp-en artean, Bilborako noranzkoan. Lanak irailaren 28ko (larunbata) 17:00etatik igandeko 13:00etara egingo dira, eta trafikoak Behobia noranzko enborrean prestatutako pasabidetik desbideratuko dira.

Konponketak AP-8an eta Biriaturako ordainlekua itxita

Astelehen gauean ere AP-8ko zenbait puntutan zoruaren konponketak egingo dira. Hori dela eta, Oiarzungo 11. irteerako adarra, Bilborako noranzkoan, itxita egongo da 21:30etik 04:00etara, eta erabiltzaileek Irungo irteera edo GI-20 errepideko Beraungoa erabili beharko dute. Itxieren eraginpean egongo dira, halaber, A-15 errepidetik AP-8rako sarrera-adarra, Behobiarako noranzkoan, eta AP-8tik A-15 errepiderako irteera-adarra, Donostiarako noranzkoan, biak Astigarragan (19.900 kp). Kasu horretan, bi adarrak zerbitzutik kanpo egongo dira 21:30etik 05:00etara, eta trafikoa Astigarragako biribilgunetik bideratuko da.

Azkenik, astelehenean hasiko da A-63 autobideko Biriaturako ordainlekuaren zorua berritzen. Ondorioz, 20:00etatik 05:00etara ordainlekua itxita egongo da eta erabiltzaileak Behobiatik desbideratuko dira.



Cerrado durante dos noches el túnel de Itziar (Deba) sentido Bilbao para renovar el firme

El lunes 30 de septiembre y el martes 1 de octubre, de 23:00h a 05:00h.



En las noches del lunes y el martes, 30 de septiembre y 1 de octubre, se renovará la capa intermedia del firme del túnel de Itziar de la AP-8 en Deba (pk 55,300) en sentido Bilbao. Con tal motivo, el tubo del túnel estará cerrado durante estas dos noches desde las 23:00h hasta las 05:00h. Los trabajos se ejecutarán en horario nocturno para minimizar las afecciones. Como alternativa, los tráficos dirección Bilbao deberán salir en Itziar y continuar por la N-634 hasta el enlace de Elgoibar. El túnel sentido Behobia permanecerá abierto.

En esta misma zona se va a fresar y extender la nueva capa de rodadura entre el pk 57,200 y 59,000 en sentido Bilbao. Los trabajos se realizarán desde las 17:00h del sábado 28 de septiembre hasta las 13:00h del domingo y los tráficos se desviarán por el bypass habilitado en el tronco dirección Behobia.

Bacheos en la AP-8 y cierre del peaje de Biriattou

El lunes por la noche también se ejecutarán trabajos de bacheos del firme en varios puntos de la AP-8. Debido a ello el ramal de la salida 11 de Oiartzun en sentido Bilbao estará cerrado desde las 21:30h hasta las 04:00h y los usuarios deberán utilizar la salida de Irun o la de Beraun en la GI-20. Otros dos tramos afectados por los cierres serán el ramal de entrada desde la A-15 a la AP-8 sentido Behobia y el ramal de salida desde la AP-8 a la A-15 sentido Donostia ambos en Astigarraga (pk 19.900). En este caso los dos ramales estarán fuera de servicio desde las 21:30h hasta las 05:00h y los tráficos se canalizarán por la rotonda de Astigarraga.

Por último, el lunes comenzará la renovación integral del firme de toda la superficie del peaje de Biriattou de la autopista A-63 con su cierre entre las 20:00h y las 05:00h y su desvío por Behobia.